



Euskal Herriko haserretu ("indignao") baten egitarau politikoa (ni ez naiz apolitikoa!):

- Herritarren parte-hartzea Lege, Dekretu, Agindu edota Ordenantza bidez arautzea.
- Etxea erosteko mailegua ordaindu ezin denean (esaterako, langabezian geratu zarelako), mailegua kitatzeko, etxea banketxeari ematea nahikoa izan dadin legezko neurriak (lege, dekretu, aginduak, e.a.) hartzea.
- Enpresa txikiak, familia-negozioak eta autonomoak sustatzeko mota guztietako neurriak hartzea, besteak beste, mailegu txikiak lortzeko zailtasunik ez izatea.
- Energia nuklearra gaitzetsi eta horren ordez mota guztietako energia garbiak bultzatzeko urrats irmo eta ausartak ematea. Hasteko, etxe guztietako teilatuetan eguzki-panelak jartzeko ekimenak diruz laguntzea, urte gutxi barru etxe guztien energiaren zati bat hortik lortzeko. Orobat, auto eta motor elektrikoak ahalik eta gehien sustatzea. Udalerrri guztietan energia eolikoaz eta eguzki-energiatz baliatzeko sistemak jarri: farola eguzki-paneldunak, errota eolikoak, e.a..
- Oinarrizko zerbitzuak (gasa eta elektrizitatea bereziki) eskandalizatzeko moduan garestitzen dizkiguten enpresen aurkako neurriak hartzea, garestitze horiek arrazoizkoak izan daitezen lortzeko. Bat batean %10eko garestitzeak egiten dituzten oinarrizko enpresak agian nazionalizatu egin beharko lirateke. Edo, bestela, horrelako garestitze abusiboak dekretu bidez eragozte.
- Politikarien soldatak berriro planteatzea. Inork ez luke hilean 3.000/4.000 euro baino gehiago irabazi beharko. Politikan aritzeko motibazioa diruan bilatzen duena alda dadila ofizioz (hobe, afizioz ere aldatuko balitz).
- Alemanian gauzak nahiko ondo doazkie, eta ez da harrigarria, han ez baitago armadarik. Agian, hori da espainiar estatuak ere jarraitu beharko lukeen bidea: armadak desegitea edo bestela birplanteatzea: biztanleria zibilari hondamendi kasuetan laguntzeko egituraketa sendo bat izatea, baina besterik ez.

- Dauzkagun lanpostuak lanik bat ere ez daukatenen artean banatzea. Adibidez, lanean ari direnek egunean 8 orduz lan egin beharrean, 6 orduz ari daitezela lanean, eta beste 2 ordu horiek langabetuen artean banatu. Denek lan egin dezaten denok gutxiago lan egin eta irabazi behar baldin badugu, lan egin dezagun eta irabaz dezagun gutxiago orduan. Eta bi orduko soldata galtzen duenaren hipotekari deskonta dakiola bi orduko diru-galerak berekin dakarkion diru-galtzea.
- Herrialde bat ez da hobea, soilik biztanle-miloi asko eta asko edukitzeagatik. Familia ugariak, eta bereziki "arrazoi erlijiosoengatik" seme-alaba asko dituzten familiak insolidarioak izateagatik salatu egin beharrekoak dira. Gobernu faxista guztiak obsesionatuta, tematuta egon dira beti kontu horrekin: "milioika eta milioika biztanle izatearekin; eta zenbat eta biztanle gehiago izan, hobe". Bai, noski, hobe gerrak antolatzeke, horrela jeneralek primeran pasatuko dute ardiak hiltegia bidaltzen, zeren haiei hori baino ez baitzaie bururatzen "demografia-arazoak" konpontzeko, unea iritsita. Elkertasunez jokatu behar dugu, eta familia ugariak elkartasunaren aurkako familia-ereduak dira.
- Politikarien bidaiek, joan-etorriek, dietek eta mota horretako kontuek sortarazten duten gastua murrizteko, bideokonferentzia bidezko ekitaldiak bultzatzea. Esaterako, zertarako bildu behar dira ordezkariak Madrileko Moncloan...? ez al ditugu hamaika bat aldiz ikusi oilar/oilanda egozentriko horiek guztiak zertarako biltzen diren: elkarri mokoka eta zirika aritzeko, txiste tristeak egiteko, elkar iraintzeko eta, finean, euren mediokritatea eta mixeriak denon begi-bistan uzteko? Bidaia gutxiago, lagunok. Bideokonferentzia hortxe dago. Eta bilerak ez dira denbora pasatzeko; bilera horietara bozka eman eta erabakiak hartzera joaten da bat, eta ez goiza pasatzera ergelkeria-lehiaketa nork irabaziko.
- Nekazari, abeltzain, basomutil eta arrantzaleek egiten duten lanari behar besteko garrantzia ematea. Lehen sektorean dihardutenen lan-baldintzak ahalik eta gehien duindu behar dira. Lurra ez da batzuek uste bezain zekena (lurbira gainean bizi diren bi-hankadun batzuk baino ez dira zekenak); aitzitik, lurrarekin zuzeneko harremana izatea luxutzat jo daiteke, den-dena ez baitabil diruaren inguruan. Gainera, esan bezala, lurra dirua ere ematen du, gauzak behar den bezala kudeatuz gero. Babestu gehiago lehen sektorea eta gutxiago bankariak!
- Asper-asper eginda gaude azpiegitura erraldoiez; askotan, horien atzean ergeltzar batzuen megalomania eta gutxiagotasun-komplexuak baino ez daude (eta eraikuntzaren inguruan mugitzen diren negozio zikinak, noski). Joka dezagun apaltasun handiagoz, mesedez; kontua ez baitatza asko edukitzean, zorientzua izatean baizik (bizitzak berez nahiko makilakada ematen dizkigu, ez ditzagun gauzak guk geuk are gehiago okertu).
- Izadiarekiko errespetuzko jarrerak (zinezkoak, ez itxurati lotsagarri batzuek hartu ohi dituztenak) bultzatu behar dira ahalik eta gehien. Herri handietan, hirietan, azpiegituren inguruan (autopista eta "skalextric" moduko errepide-sare inguruetan) basoak eta izadi-guneak bultzatu behar dira. Hirietan, batez, ere berde-guneak, lorategiak, zuhaitzak, landareak, zuhaixkak, soropila... nonahi agertu beharko lirarteke.

Hormigoia ondo dago, baina neurritz eta behar denean eta gustu onez erabilia (modu asko daude lanak "bukatzat" jotzeko. Etorri Astigarragara eta esadazue muntatu diguten scalextric-a "ondo bukatuta dagoen").

- Alokairu baxuko etxebizitzak, babes ofizialeko etxeak, e.a. barra-barra eskaini behar ditugu. Eta gaur egun, horretarako, beti ez da beharrezkoa gehiago eraikitzea, baizik-eta hutsik dauden milaka eta milaka etxebizitzak merkatura ateratzea, legez.
- Madril abiapuntutzat duten komunikabideei bi aukera hauek ematea: edo jarrera irekiagoa hartzen duzuen edo... kale gorrira zoazte. Edo, behintzat, diru publikoa jasotzeari utziko diozue. Telebista publikoak estatuko hizkuntza guztiak jasoko dituzten saio-orduak sartu beharko dituzte euren eguneroko programazioetan.
- Kable-bidezko telebista bultzatu, antena edo TDT bidezko telebistaren kaltetan. Zergatik? Kable-bidezko telebistak arazo eta gastu askoz gutxiago sortarazten dituelako, mota guztietako orografietan seinale askoz hobea eskaintzen duelako, kudeatzen askoz errazagoa delako, telebista-kanalak martxan jartzeko aukera zabalagoa (sozialagoa) eskaintzen duelako, e.a.
- Komisaldegi eta kartzela guzti-guztietan bideokamerak jarri, baina ez presoak kontrolatzeko, goardiak eta kartzelazainak kontrolatzeko baizik. Egia baldin bada presoek tratatu ona ematen dietela, ez dira ezeren beldur izango, ezta? Hau oso gai garrantzitsua da. Berdin dio pertsona batek zer egin duen. Kartzelan egon behar baldin badu, egon dadila. Baina ez jipoituta eta bakartuta pizti baten gisan. Hori krimen bat da, estatuko krimen bat. Kartzelan baldintza duinak eskaini behar dira, berdin dio 3 hilabete ala 23 urte bertan pasatuko dituzun, baldintza duinak eskaini behar dira beti. Gizatiartasuna ez da sekula galdu behar; preso batzuek galtzea, bueno, tira, baina guk, gizarteak, epaileek, funtzionarioek galtzea, hori inolaz ere ez. Kartzeletan presoek lan egin behar dute, baina ez gatibuak balira bezala; ez, egunean zazpi edo zortzi orduz lan egin, soldata irabazi, eta kartzela barruan denetik izan: denda, zinema, liburutegia, lanbide bat ikasteko aukera, e.a. Dena, "gauzatxo" bat izan ezik: askatasuna (ez da gutxi, ezta?). Preso oso-oso arriskutsuak edota oso-oso oldarzialeak bakarrik jarri beharko lirakeke aparte eta psikologoek eta gizarte-eragileen laguntzaz ahal dena egin.
- Feminismoaz ezer gutxi esateko daukagu, feminismoaren aldarrikapenekin bat gatoz eta. Feminismoaren aldarrikapenak honez gero onartu ez dituenak eman dezala izena beste alderdi batean. Berdin-berdin homosexualitateari dagokionez. Dena den, emakume-hitza ez da jainko-hitza. Badira milaka eta milaka kasu, gezurrezko salaketetan oinarrituak dibortzio errazak eta salatzailearen aldeko baldintzak (seme-alaben zaintza, etxebizitza, soldata-puska, e.a.) lortzearren. Horri ere kontu egin behar zaio. Kabroiak toki guztietan daude, eta zakildunen zein klitoridunen artean ugari-ugariak dira (gogoratzen, ABU-AIZ kartzelako irudiez...? Ba horixe).
- Gure ibaiak gai kaltegarriekin pozoitzea edo gure herri eta hirietako kultur ondareak eta eraikinak garabatuen (graffitien) bidez izorratzea funtsean abia bera duten bi ekintza higuigarri dira. Gogor egin beharra dago gure hiri-paisaiak zaborren pare tratatzen dituzten ergeltzar antisozialen aurka. Herri batekin bukatu nahi baduzu, ken

iezaiozu bere harrotasuna; eta herri baten harrotasuna kentzeko, zikin iezaiozu herria, bete lantegi zikinez, eraikin negargarriz, zabortegiz, kez eta... garabatuz. Eta ea behingoz ikasten dugun garabatua eta graffitia bereizten: bata kaka da eta bestea artea. Artea praktikatu nahi duenak, lehenik ikas dezala. Edo, bestela, praktika dezala bere etxeko lau hormen artean (uzten badiote).

- Genozidioan oinarritutako herrialde ororekin harremanak moztu. Baina, bereziki, gaur egungo Israelgo estatuarekin eten behar dira diplomazia-, ekonomia, kultur eta gizarte-harreman oro. Gaur egun, Johannesburg-en pareko "marka" lortu dutenen herrialdeen zerrendaren buruan Israel dagoela esango bagenu... ez ginateke tronpatuko. Luzaro jasan behar izan ditugu herrialde horren basakeriak. Bada garaia "aski" esateko, une jakin batean Johannesburg-ekin egin zen bezala. Hasteko, estatu horrekin harremanak eten eta ahal den gehiena egin beharra dago beste herrialde batzuek ere ildo bereko erabakia har dezaten. Johannesburg-ekin lortu bagenuen, oraingoan ere lortuko dugu. Genozidarik ez!
- Politikari on batek arazo handiak zein txikiak kudeatzen jakin behar du. Batzuek, ordea, ezta arazorik txikiak ere ez dakite konpontzen; beraz, nolatan jakingo dute arazo larriei egoki erantzuten? Esaterako, txakurren gorotzak. Hortxe nonahi ikusten dira espaloietan barreiatuta, askotan, oinezkoen espaloiak hamaika txakur-gorotzez zikin-zikin, txakurren euren artean infekzioak eta gaitzak zabaltzen.... Alde horretatik, Hernaniko udalak hartutako jarrera begi onez ikusten dut nik (txakur guztiei AND atera eta hortik aurrera espaloietan agertzen diren gorotzak analizatzera eraman, txakurraren jabea lokalizatu eta dagokion isuna ordain dezan). Gainera, nik neure txakurraren gorotzak zintzi-zintzo jasotzen baditut eta beste batek gauza bera egiten ez badu, orduan nik hortik zer ondorioztatu behar dut? nik ez dauzkadan eskubideak beste batzuek badauzkatela, ala? Akaso, udalerrri bateko txakur guztien AND jaso orde, sistematikoki araua betetzen ez duten txakurrenak jaso beharko lirateke bakarrik. Ez da horren zaila jakitea nor den nor (nahi dutenean, ederki moldatzen dira agintariak gutaz azken zehaztasuneraino jakiten, ezta?).
- Telebistan saio txabakanoak debekatzea (txabakanismoa herrialde baten minbizia da, burmuinetako minbizia baino askoz okerragoa: espirituaren minbizia). Hobe da aspertzea, txabakano bihurtzea baino. Asperduratik atereak dira ekimen eta mugimendu interesgarri asko eta asko; baina txabakanismotik inoiz ez da merezi duen ezertxo ere atera, "jai nazionalak " eta tankera horretako pitokeriak, ordea, bai, ugari atera izan dira...
- Berariaz, jai nazionala debekatzea. Animaliei tratu duina ematea zor zaie. Beti. Zeren animaliak duintasunez tratatzen ez dituenak, pertsonak are eta gutxiago.
- Eskolako porrotaren aurka borrokatzeko pertsona helduei zuzendutako eskolak zabaltzea. Mundu guztiak ez du (ezin du) ikastearen garrantzia gaztetan edota haurretan ulertu, pertsona batzuek beste batzuek baino denbora gehiago behar dute, besterik ez da. Eskuzabaltasunez jokatu behar da, eta gazte-denboran ikasi ez zuenari helduaroan ikasteko aukera eman. Noski, pertsona helduak lan egin behar du; beraz, lan egin eta aldi berean gaueko eskola, lizeo, fakultate edota lanbide-zikloetan ikasi

beharko du. Horretarako, beharrezkoa da gaueko irakaskuntza antolatzea, erabat ezabatu beharrean (gaur egun erabat ezabatuta dago eta). Herrialde bateko kultur eta prestakuntza-maila, neurri handi batean, jende helduaren prestakuntza-egituraketaren mendean dagoela esango banu, ez dut uste gehiegi okertuko nintzatekeenik.

- Amazonian gertatzen diren baso-soilketetan kezka eta ardura gehiago jarri beharra dago, bertakoengatik eta gugatik (munduko birrikak hantxe omen daude-eta). Mundu global honetan behar-beharrezkoa elkartasuna globalizatzea. Ziur aski hortxe egon daiteke gure planetaren aukerarik ederrena, elkartasuna globalizatzeko nahikunde horretan. Bilatu beharra daukagu lotzen gaituena, etsaitzen gaituenaren kaltetan. Horregatik, kapitalismo basatia eta Friedman bezalako gizaki primitiboak publikoki gaitzetsi behar ditugu. Eta Amazonia gure planetako bandera bihurtu.
- “Haserretu”en mugimendu guztiek politikan eta boterean jarri behar lukete begirada; gauzak aldatzeko bide bakarra horixe baita: boterea eskuratzea eta dekretuen bidez gauzak aldatu. Bi urte barru gertatzekoa den PP-ren erabateko garaipena oztopatzeko bide bakarra horixe da, ziur. Estatuan berez sortu den mugimendu hori oso parte txarrean geratuko litzateke, nire ustez, nolabaiteko indar politiko bilakatzeko urratsa emango ez balu. Ez da beharrezkoa, gainera, “ohiko” alderdi politiko bat sortzea. Alde horretatik, euren irudimena eta espiritu berria ere jar ditzakete lanean, orain arteko ez bezalako indar politiko bat eratzeko. Ea gai diren.
- Bertoko produktuak bultzatu behar ditugu, herrialde baten ekonomiaren arrakasta hor datza eta. Eta bertoko produktuez ari naizenean, ez nagokie soilik nekazaritzako edo abeltzaintzako produktuei, produktu-mota guztiei baizik. Demagun, adibidez, milaka eguzki-panel jartzeko proiektua bultzatu nahi dugula. Beno ba, lehenik eguzki-panelak hemen bertan fabrikatuko dituzten lantegiak sortu beharko ditugu, kanpora jo beharrik gabe. Hau da, barne-merkatuari lehenatasuna ematea da proposatzen duguna, juxtu multinazionalak eta burtsalariak egiten ez dutena, kabroitxo horiek beti eskulanik merkeenaren bila ibiltzen baitira, aberats horteroen lehiaketa irabaztea beste konturik ez baitaude euren buru ustelduetan.
- Interneten gauza asko ikusten dira, baina ikusten den guztia ez dakit nik noraino ote den onuragarria. Esaterako, pornografiaren inguruan mugitzen diren ehunka web gune horietan gertatzen diren basakeriak ez al dira kapitalismo basatiaren abidide eta ondorioa? Puritanismoa gauza bat da, baina pertsona bat zure begien aurrean benetan nola torturatzen duten ikustea ez al da gehiegizkoa? ez ote gara arrazoizko mugatik harantzago pasatzen ari? Bereziki, BDSM eta Sadoa eta mota horretako fantasiak eskaintzen dituzten web guneak ditut buruan. Berez fantasia ahaltsuak dira, milioika pertsona hipnotizatzeko gaitasuna dutenak, eta fantasia modura erakargarriak dira, bai, baina mafioso eta gaizkileen eskuetan eroriz gero (eta horietako gehienak mafien esku daude dagoeneko), orduan non geratzen dira fantasiak horiek? ez ote diote bidea zabaltzen berez guztiz higuinagarria eta gaitzesgarria den errealtate bati? Kapitalismo basatiaren beste aurpegia ez al da? Gizonok, bereziki, erraz jausten gara horrelakoetan, naturak berak ezarria baitigu ez-nolanahiko sexu-grina, baina... gauzak maila horretaraino eramanez gero, ez al gaitu suntsitzen gizaki bezala? Nik sado

fantasiak eta erotismoa oro har soilik utziko nituzke zinema profesionalki egiten dakitenean esku, baina makarra, gaizkile eta mafiosoen eskutik diru truke eskaintzen zaizkigun beste material horiek guztiak debekatu egingo nituzke. Gizonok, bereziki, eskertu egingo genuke.

- Askotan kontsumitzaileok zoratu egiten dira hainbesteko eskaintza dela eta. Kontsumitzaileon onerako, banketxera mailegu bila joaten garenean, lehendik protokolo batek ezarrita egon behar luke, bakoitza bere ahalbideen arabera maileguak eta kredituak lor ditzan. Bestela, konturatzen gareneko, bizitzen utziko ez digun mailegu baten atzaparretan egon gaitezke. Hori ekiditeko, neurriak hartu behar dira. Eta esan bezala, mailegua eskuratzeko arrazoizko protokolo bat ezarri behar da.
- Liburu elektronikoaren teknologian aurreratu egin behar da. Paperezko euskarritik euskarri digitalera salto egin behar da lehenbailehen. Gure basoek eskertuko digute, baita gure egongelek ere. Oro har, euskarri digitala dela medio, kultura sozializatzea errazagoa izango da eta idazleentzat eurentzat ere oso onuragarria izan daiteke, moldiztegiako gastu ikaragarria kenduta idazlearen orain arteko etekin txikiak goratzeko aukera emango lukeelako. Baina oraingoz liburu elektronikoa merkatu eta hobetu egin behar da.
- Langabeziaren aurka eta gazteei lanpostu bat aurkitzeko laguntzeko beste neurri garrantzitsu bat "babes ofizialeko lokalak" eskaintzea izango litzateke. Babes ofizialeko lokal hauek babes ofizialeko etxebizitzaren filosofiari berberari erantzuneko liokete eta beraien helburua zein den irudikatzen ez da hitz gehiegi erabili behar: lokalak baldintza onetan eskaintzea, beren negozioa jarri nahi dutenei laguntzeko.
- Hauteskundeak baino lehen eta hauteskundeak eta gero, mota honetako egitarauak herritarrei idatziz bidaltzen ez dizkieten alderdi politikoak publikoki salatzea da gure proposamenetako beste bat. Nazkatuak gaude hauteskundearen garaian jende irribarretsuz jositako kartelak han eta hemen ikusteaz, txo irribarretsu eta aurpegi-zintzo horiek euren "begitarterik zintzoena" saldu nahi izango baligute bezala, edota are okerragoa, euren egitarau politiko osoa "aurpegi zerutiarrak" jartzera eta mota horretako imintzioak egitera mugatuko balitz bezala. Zelako lotsagabeak! Nolatan ote da posible hauteskundeetarako bere burua aurkezten duen batek proposamenez jositako egitaraurik ez igortzea herritarrei, jakin dezagun zehatz-mehatz zer proposatzen duten eta benetan politikari izateko balio duten ala ez!
- Sinetsarazi egin digute ezen etxe bat izateko behar-beharrezkoa dela ez dakit zenbat solairutako eraikinak egitea. Beno, neurri batean egia da, baina ez beti ez leku guztietan. Gaur egun, etxe aurrez fabrikatuen munduak aurrerapauso ikaragarriak egin ditu, eta gainera, mota horretako eraikuntzak oso egokiak dira naturarekin harreman berezi bat izan nahi duenarentzat. Kalitate handi-handiko mobil-homak ere badaude, bikote, gazte, guraso bakarreko eta erretirodunentzat oso-oso egokiak, etxebizitza normal baten erosotasun guztiekin, eta baso-itxurako lekuetan arazorik gabe instalatu daitezkeenak, esan bezala, oinarritzko zerbitzu guzti-guztiekin: argindarra, ur korronea, estolderiak, .e.a. Ezagutzen al duzue Frantzia aldeko lau izarreko kanpinak? Ba horrelako leku bat, baina bizitzeko. Nik bi aldiz emango nuke izena halako batean, eta

benetan esaten dizuet baina 40.000-60.000 euroko mobil-home bat ia-ia jauregi bat da... eta zor handiegietan sartu gabe! Ea zer etxebizitza-klase erosten duzun Donostian kopuru horren truke... Noski, horrelako auzuneak planteatzeko tokirik ez daukagula esango digute, baina 750 kamioientzako aparkaleku bat egiteko tokia bai, horretarako topatuko dute toki bat edo beste, esaterako, hemen bertan, Astigarragan, ezta?

- Etxe prefabrikatu-parke bat prest izan beharko genuke beti hondamendi-kasuei azkar-azkar erantzun ahal izateko. Lorca-n (Mediterranioan), esaterako, ehunka ez baina milaka pertsona bat-batean etxerik gabe geratu dira. Ez daukate etxerik, askok jada existitzen ez den etxebizitzaren mailegua bankuari ordaintzen jarraitu behar dute, senideen etxeetan ahal bezala sartu, kanpaina-dendetan bolara luzeak igaro... Aizue, bigarren eskuko mobil-home piloa dago prezio benetan ziztrinetan salgai, eta oso ondo daude horrelako kasuetarako. Eta berriak izango balira ere, ez lirateke oso garesti aterako (mobil-home berri eta normaltxo baten prezioa, gutxi gorabehera, 25.000-30.000 eurokoa da). Hortaz, gehiago pentsatu jendearen ongitasunean eta gutxixeago "eraikuntzan". Bai, eraikuntzan diot, zeren asko pozez txoratzen egongo baitira pentsatuz Lorca-n zelako "negozioa" daukaten den-dena hutsetik berreraikitzeke. Eta Japonian, beno, hortik etorriko zaie bigarren "indarraldi handia". Kapitalismo basatiak halaxe pentsatzen duelako: hondamendi handietatik probetxurik handiena atera. Eta gero esan jendeari "ekonomia berez horrelakoa dela eta sistemari utzi egin behar zaiola bere bidea egiten, eskua sartu gabe". Gezurrak eta gezurrak.